

# BALIOZKO PROPOSAMENAK

## Zer behar edo arazo konpontzen duzue?

Gure etxeetan arreta gutxi jartzen zaien landareen bizi itxaropena luzatzen dugu proiektu honen bitartez. Horrela etxeak landareekin apaintzeaz gain, baratza txikitxoak edukitzeko aukera emango liguke pale hauek. Gure proiektua despistatuak diren pertsonentzat balioko luke; Landareak eduki nahi dituzten pertsonentzat baina oso lanpetuta daudenez ezin dituzte landareak zaindu aukera hau egokia izango litzake ere, munduko edozein lekutik bere etxean dauden landareak ureztatu ditzazketelako. Gainera, beroketa globalaren arazoa mantsoarazten lagunduko genuke proiektu honen bitartez.



## Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure proiektuak, landareak edukitzeko edo barazkiak etxean landatzeko ideia baldin baduzu, beraietaz hainbeste ez arduratzeko balioko du. Landareak ura behar duenean, sistema teknologiko baten bidez mezu bat iritsiko zaizu zure mugikorrera, eta botoi bati sakatuz, zuk edukitako landareak ureztatuko zaizkizu, beraien bizi-itxaropena luzatuz. Bezeroak guri ordaintzeko prest egongo dira sistema hau landareekin denbora gutxi pasatzeko eta hauek ondo egoteko balio duelako; hau da, normalean, pertsona gehienok ez dugu nahi landareekin denbora gehiegi pasa baina gure etxean hazitako frutak eta barazkiak edo landareak nahi ditugu, horregatik bezeroak guri ordaintzeko prest egongo lirateke, gure sistemari esker landareekin denbora asko pasatzea beharrezkoa ez delako. Despistatuak diren bezeroak ere guri ordaintzeko prest egongo dira, landareei ez direlako adi egon behar. Laburbilduz, bezero guztiak gure produktua ordaintzeko prest egongo dira.

